

KarKara

ZENBAKIA

ORIOKO ALDIZKARIA

1995eko abuztuaren 10eko zenbakia




San Nikolas

J A I A K

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



kutxa fundazioa

fundación kutxa

KarKara

aldizkaria

Herriko Plaza, 1
20810 ORIO
Tel. 83 15 27

Lege-gordailua
SS 346/90

ISSN
1132-1105

Tirada
2000 ale

Erredakzio-taldea

Marisa Arruabarrena
Miren Etxeberria
Jabier Gaiton
Ana G. de Txabarri
Ana Iturain
Iñaki Iturain
Nere Manterola
Jabier Zabaleta

Publizitate-arduradunak

Miren Etxeberria
Ana Iturain

Kolaboratzaileak

Manu Etxeberria
Andres Garmendia
Patxi Oliden

Azken orrialdeko marraskia

Daniel Bastos

Argazkiak

Ana G. de Txabarri

Inprimategia

Bizker (Usurbil)

- 4 Gutunak
5 Herrian galdezka
Orion haurtzaindegirik behar al da?
6 Herriko kontuak
10 Kirolak
13 Bertsoak
"Emaioak Buelta!" Bertso eskola
14 Erreportaia
Orioko ezizenak
16 Iritzia
Eskerrak Orioko Herriari
Jose Luis Korta
17 Elkarrizketa
Joxe Mari Sarasua: Joxe Mari Sarasua
lanean Hirugarren Munduari
laguntzen
20 Denetik piska bat
25 Kolaborazioa
Bariko San Nikolas
26 Azkena

1993ko publizitate-prezioak

Modulo bat	1.500 PTA
Bi modulo	3.000 PTA
Hiru modulo	4.500 PTA
Lau modulo	6.000 PTA
Sei modulo	9.000 PTA
Orrialde erdia	13.500 PTA
Orrialde osoa	27.000 PTA

☞ Prezio hauek zenbaki baterako balio dute. Urtean hamar zenbaki argitaratuko ditugunez, zenbaki guztietan beren publizitatea egin nahi dutenek % 10eko deskontua izango dute prezio hauen gainean.



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria



Gipuzkoako Diputazioak
diruz lagundutako aldizkaria

Autopista azpiko parkea zabortegi bat da

Gure seme-alabak eskolatik ateratzen direnean, autopista azpian dagoen parkera joaten gara egunero. Toki hori aukeratu dugu leku asko dagoelako eta bertatik kotxe gutxi pasatzen delako. Baina, arazo handi bat aurkitu dugu, ez dago ez zakarrontzirik, ez garbitasunik. Horregatik Udalari galdera hau zuzendu nahi diogu: Zertarako parke bat egin, gero gure seme-alabek zaramaren erdian jolastu behar badute?

CARMEN CUERVO
MIREN MURILLO
MARIA LUISA GENOVA
INES ZINKUNEGI
CLARI URRETABIZKAIA
M. PILAR DIAZ DE MENDIBIL

Orion ere badaude instrumentujole onak

Nere asmoa da KARKARAN, nere lagunez zerbaite idaztea. Nerea eta Amaia dira nere lagunak. Ni, musika betidanik gustatu izan zaidan neska bat naiz. Nik, bost edo sei urte nituela, jai goizero, ohetik korrika eta presaka jeikitzen nintzen,

balkoitik txisndariak ikustera eta han tartean zegoen Nerea. Zoritzarrez orain dela denbora piska bat txisulari talde hori desagertu egin da. Hau poza baita ere, Nerea eta Amaia Gutierrez eskusoinua ikasten hasi zirenean. Baina eskusoinua utzi eta Amaiak bibolina jotzea pentsatu zuen, eta Nereak herriz, biola jotzea pentsatu zuen.

Donostiako kontzertuburoioan hasi ziren instrumentu hauek jotzen. Urte

dezente pasa eta gero, Donostiako Orkestra Txikian onartu zituzten biak. Orkestra Txikiko ia kontzertu guztietan, han izango nintzen. Hura zoragarria zen. Baina oraindik eta zoragarriagoa zen, lehenengo hilaren, Donostiako Udaletxean, lehenengo aldiz Orkestra Handian jo zutenean. Horrela jarrai dezatela. Animo pila bat gure partetik

OROTAR BAI



Babes ofizialaren aitazkiarekin habestuta, etxeak egin nahi dizkigute parke honen gainean. Gu, Anibarko Portuko bizilagunak ez gaude etxeak egitearen aurka, gu parkea puskatzearen aurka gaude.

ETXEAK BAI, BAINA PARKEAN EZ.

ANIBARKO PORTUKO BIZILAGUNAK

ARGI-GAIK
elektrizitatea
argi halogenoak

LIZASO
ERLOJU eta
BITXI DENDA
kala, 5 Tfnoa: 83 10 90

ITURAIN
okindegia
Aritzaga ☎ 83 08 28

Z U M I N T Z A
◆ Itzapaindegia ◆ Sauna ◆ Depilazioa ◆ Estetika
Eusko Gudari Kalea, 25 Telefonoa: 83 17 56

Shock!
ILEAPAINDEGIA
ESTETIKA
Oa. 1 ☎ 13 22 77 ORIO

Orion haurtzaindegirik behar al da?

Orioko zenbait pertsona, haurtzaindegi bat sortzeko ahaleginetan dabil, oraindik hasi besterik egin ez badute ere. Gu interesatuengana edo agian interesa izan dezaketengana hurbildu gara, zer iritzi duten jakiteko.



M. ISABEL AIZPURUA
31 URTE

Haurtzaindegi bat egote-kotan, Udalak antolatu beharko luke, merkeago ateratzen delako. Nire ustez, monjetako haurtzaindegiak ez du betetzen zerbitzu hori; hor bi gastu joaten zaizkizu, batetik, neskarena eta bestetik monjen kuotarena.



KARMELE OLIDEN
19 urte

Nire ustez, bai Sagrario eta bai monjetako haurtzaindegiak ez dute betetzen haurtzaindegien funtzioa. Berez haurtzaindegi baten funtzioa edukitzea da, gainera zerotik hiru urtetara umeek ikasteko kapazitate-rik handiena duten etapa da.

MARIE LAZKANO
26 urte

Orion haurtzaindegi baten beharra ikusten dut, ume asko dago eta lana egiten duten gurasoak ere bai. Sagrario eta monjek ez dute haurtzaindegi baten funtzioa betetzen, baina lagundu bai. Gainera, oso denbora gutxi egoten dira bertan umeak.



JUANITO DORRONSORO
32 urte

Orion, haurtzaindegi mu-nizipal bat egotea ondo le-goke, guraso bakoitzak bes-te aukera bat eduki eta berak erabakitzeke. Sagrario eta monjek laguntza ematen dute, baina ez dute benetako haurtzaindegi baten zerbi-tzua eskaintzen.



**Bertan egindako
opil eta ogiak**



OBIA

Erretegi-Jatetxea

Santiago auzoa
Telefona: 83 57 38

AXUN

JANARIDENDA

Tfnoa: 83-59-02

Bainua berritzea
pentsatzen baduzu...

ALONSO ZERAMIKAK



Zaragueta eskolak "Euskeraz gazte" eta "Euskeraz bizi" kanpainak uztartu ditu

Orioko eskola publikoa erabat identifikatu eta konprometituta egon da Euskera-Batzordeak sorturiko kanpaina honen helburuekin. Horregatik, aginduta zeukan bezala, hainbat ekitaldi berezi burutu ditu eskolako ordutegiaren barruan. Horrela, astebetean zehar ikasleek "Euskeraz Gazte" lema- inguruan marrazki, ormirudi eta pankartak egin dituzte jolastokia girotzeko, eta baita ere egun horietan, normalki futbol eta antzerako iharduerak egiteko erabiltzen dituzten errekreok, euskal musika, dantza, jaialdi eta herri-kirol saioez bete dira. Ikasleen artean euskeraz komunikatzeko ohitura eta zaletasuna indartzeko ahalegin hau ez da honetan bakarrik geldituko, izan ere, ikasturte honetan zehar Zaragueta eskola "Euskeraz Bizi" izeneko proiektua garatzen ari baita, modu sistematiko batez arlo honetan dagoen pasibitatea zirikatatu nahian.

Postkonfirmazioko taldeak boluntarioak behar ditu

Postkonfirmazioko taldeak laguntza sozialari aurre egin ahal izateko talde boluntario bat osatu nahi du. Interesatuak 13 19 45 telefonora deitu eta postkonfirmazioko taldearengatik galde dezatela.

✓ Anjel Lertxundi Tarra- gonan izan da Galeuzkak antolatutako literatur jardunaldietan, azaroaren 12tik 14era.

Bertan, "Euskal Literatu- raren espazioak" izeneko h- izaldia eman zuten.

✓ J. Frantzisko Lukas Nicaraguan dago. Hango Unibertsitateak eta Euskal Herrikoak duten interkanbio programa batean lan ean.

✓ KARKARAK parte hartu du Arrasaten izandako herri komuniabideei buruzko bigarren jardunaldietan, azaroaren 26 eta 27an.

✓ Orioko traineruak 2000 tonako itsasontzi bat mugitu zuten Mallorcan. Hori egite- agatik milioi bat pezetara esku- ratu du.

GABON

Taberna-Kafetegia

Telefonoa: 83 06 09

AURRERA

disko-taberna

ORIO

IPARRAGIRRE

AUTOZERBITZUA

Oa kalea,5 Tfnoa: 83 17 15

ERRUSTA
taberna

Kriston bokadillok!!

Koasta
Taberna

Lasaitasuna
eta
giro ona

Antzerki-gau umoretsu eta arrakastatsua Orion

Berrehun bat lagun izan ziren, azaroaren 13an herriko frontoian antzerki emanaldia ikustera hurbildu zirenak.

Ekitaldi hau, Xurumuru Kultur Taldeak antolatua zuen, "Euskaraz Gazte" kanpainaren barnean. Bertaratu zirenek, Azpeitiko Antxieta taldeak antzeztutako "NOR NORI NORK Hau saltsa" izeneko lana ikusteko aukera izan zuten.

Herriko koru berriak hasi ditu entsaioak

Aurreko alean Kontserbatorioak gure herrian koru bat osatzeko egindako deialdiak erantzun ona jaso du. Santa Zuzilia egunean egin zuen lehen entsaioa, Marina Lertxundiren zuzendaritzapean. Norbaitek parte hartu nahi badu, oraindik ere joan daiteke entsaioetara. Astelehen eta ostegunetan egiten dira gaueko 9etan musika-eskolako lehen pisan.

51 lagun KARKARA bazkarian

Azaroaren 7an KARKARAREN 25. alea ospatzeko, Itsas Ondo jatetxean bildu ginen gurekin kolaboratu duten oriotar frankorekin,



Jende ugari soziolinguistika ikastaroan

Azaroaren 4, 11, 18 eta 25ean soziolinguistika ikastaroa izan da "Euskaraz gazte" kanpainaren barnean. Guztira hogeita bost lagun inguru izan dira parte hartu dutenak.

Ikastaroan jorratutako gaiak, honako hauek izan dira:

"Nola menperatzen ditugun hizkuntzak eta nola hizkuntzak menperatzen gaituen gu". Jon Iñaki Izarzelaiak, Aretxabaletako BEINKE euskara-elkarteko liberatua izan zen hizlaria.

"Euskararen inguruko hainbat ideia argitu nahian". Hizlaria, Kike Amorriz, izan genuen SIADECO elkartekoa.

"Teoria eta praktika uztartu nahian; adibide bat". Iñaki Arruti Lasarte-Oriako Udaleko euskara-teknikaria eta TTAKUN elkarteko kideak bideratu zuen hitzaldia.

Azkenik, eta ikastaroari amaiera emateko, ...*Eta Orion zer?* izeneko mintegi bat egin zen. Bertan, Orion euskararen inguruan dauden arazoak aztertu ziren, eta era berean etorkizunari begira, zer ekintzak egin daitezkeen eztaba idatu zuten. Beraz, ikastaroaren emaitzak aurrerantzean ikusi ahal izango dira.

Autoak aukera
onean

AIA ORIO

Telefonoa: 13 04 38

Sukaldea berritzea
pentsatzen baduzu...

ALONSO ZERBAMIKAK

II. Gabon kantu, jantzi eta jaiotzen lehiaketa

Talai-Mendi Elkartek, iaz egin zuen bezala, Gabonetako kantu, jantzi eta jaiotzen lehiaketa antolatu du. Bertan parte hartu ahal izateko, bete beharreko arauak honako hauek dira:

- Taldeak gutxienez hiru eta gehienez bostekoak izan behar dute.

- Talde bakoitzak bi abesti abestu beharko ditu.

- Irabazlea aukeratzeko, abestia, jantzia eta jaiotza kontutan hartuko dira.

- Edonork parte har dezake (mugarik gabe).

- Izena abenduaren 20a baino lehen eman behar da Lore burdindegian.

Banatuako diren sariak hauek izango dira:

Lehenengo saria: Talai-Mendi Elkartek 94 urterako antolatzen dituen irteera guztiak doan eta 10.000 pezeta.

Bigarren saria: Aurreko kasuan bezala, irteerak doan eta 7.000 pezeta.

Hirugarren saria: 94garren urteko mendi irteerak doan eta 5.000 pezeta.

Txapelketa, abenduaren 24ean izango da, herriko plazan arratsaldeko bost terdietan. Sariak arratseko zazpitan banatuko dira.

Parte hartzen dutenen jaiotza guztiak abenduaren 25etik urtarrilaren 1a arte Udaletxean ikusgai egongo dira.



“Euskaraz gazte” bideoa salgai dago dagoeneko

Orioko gazteen artean euskararen erabilera zein den erakusten duen bideo bat egin da Euskara Batzordeak antolatutako “Euskaraz gazte” kanpainaren barnean.

Bideoa, Iñaki Carretero gazte oriotarrak zuzendua da, eta grabaketa guztiak gure herrian eta bere inguruetan eginak dira. Bertan, herriko haur, gazte eta heldu asko azaltzen dira iritzi desberdinak emanez. Aurkezle eta narratzailea Miren Etxeberria da eta esan behar da baita ere, gure herriko hiru bertsolari gaztek, Ibai Esoain, Xabier Sukia eta Urko Esnaolak parte hartu dutela, bideoari doinua jarritz.

Bideoaren aurkezpena azaroaren 20an izan zen Itsas Etxeko areto nagusian, eta argazkian ikus daitekeen bezala jende ugari (ehun bat lagun) bildu zen honen berri jakiteko.

Bideoa, lehen esan bezala salgai dago dagoeneko herriko liburutenda eta estankoetan: Iturain, Alustiza eta Ontzan. Jende guztiak erosi ahal izateko, Udalak erabaki zuen kostu prezioan saltzea, hau da, 300 pezeta.

URBAZTER

Aseguru eta bidai agentzia

San Nikolas kalea, 8

☎ 13 33 14

ERRUSTA

TABERNA

Kriston bokadillok!!

"Euskaraz gazte" k badu bere kanta

Kanpainari bukaera emateko azaroaren 28an herriko plazan egindako jaialdian eman zuen ezagutzera Imanol Urkizuk berak kanpainarako propio egin duen kanta. Kanta horrek eman zion bukaera giro ez in hobeko jaialdiari. Kantaren hitzak Ibai Esaoimenak dira.

Euskaraz gazte

Ez gaude lasai zeren jendeak sarritan hauxe ohi du egiten Euskaraz gazte esanagatik gero erderaz hitzegiten

KANTUZ JAI ETA ASTE
ENTZUN BEHAR GAITUZTE
KALEAN ZABALDUAZ
EUSKARAZ GAZTE

Lotsa albora utzi ta hasi euskarari indarra ematen gure hizkuntza ez dakitenek gugandik ikasi dezaten

KANTUZ JAI ETA ASTE (...)

Euskaraz egin euskaraz egin euskaraz egin ezazu lagun hainbeste kosta den kanpainak alperrik izan ez dakigun

KANTUZ JAI ETA ASTE (...)



Nerea eta Amaia Gutierrez Donostiako Kontserbatorioko Orkestra Sinfonikoan

Kontserbatorioko Orkestra Txikian urte batzuk eman eta gero Orioko bi ahizpa gazte hauek Orkestra Sinfonikora pasa dira aurtun.

20 urteko Nereak biola jotzen du, eta Amaiak, 18 urte dituenak, biolina. Dagoeneko, Orkestra Sinfonikoak eskainitako hiru kontzertutan jo dute eta hurrengoak, abenduaren 17an eta 18an izango dira. Aurrengo Donostiako Udaletxean izango da eta bigarrena Loiola auzoko elizan.

BORDATXO
Taberna
☎ 13 30 14

LIZASO
ALTZARIAK
Eusko Gudari, 46 ☎ 83 07 84
Aita Lertxundi, 6 ☎ 13 33 01

ALONSO ZERBAMIKATIK

300 modelo baino gehiago

AZULEJU ETA GRES

Porcelánosa-Venis-Diago-Saloni...

Iturbide 5 Telefonoa: 13 10 88



Oriotarrak Behobia-Donostia lasterketan

Argazkian ikus daitekeenez, oriotar dexente izan zen joan den azaroaren 14an Behobia-Donostia lasterketan. Dena den, beste batzuk ere bertan ibili ziren, ibilbidearen hogeit hamar kilometroei aurre eginez. Bereziki aipagarria da Kamel Ziani gure korrikalari gazteak lortutako laugarren postua, besteak beste Juan Mari Garin gaituz. Gainontzean, hona hemen Oriotik bertaratutako taldearen bost onenen denborak:

Iñaki Tapia: 1-13-02
 Juan Anjel Garmendia: 1-15-50
 Migel Mari Berasaluze: 1-17-12
 Jose Manuel Tapia: 1-20-47
 Jose Inazio Atorrasagasti: 1-20-55

Orioko "Aurrera-Daddy" futbito taldea kategoriako golegilerik onena

Berria denez regionale-tako hirugarren maila kokatu duten ekipo oriotarrak, jada 2. postua eskuratu du 9 partidutan sartutako 81 golei esker. Aro berri honetan taldea osatzen duten mutilak hauek dira:

Delegatua: Fernando Gama; Atezaina: Andoni Manterola. Jokalariak Ignazio Zaldua, Jabier Jimeno, Juan Angel Arruti, Fulgentzio Velez, Asier Gozategi, Ramon Alkain eta Xabier Arostegi. Entrenatzaile lanetan Julio Alvarez aritzen da. Aurrera disko-tabernak eta Daddy jantzi-dendak beharrezko duten kirol material guztia ordaintzen diete. Kanpaina honetarako helburua, ekipoa regionale-tako 2. mailara igotzea da, dena den, eta beste edozein asmoren gainetik, lagunartean gustokoa duten kirola praktikatzea kontsideratzen dute inportanteena. Beren jokuarekin asteburuetan frontoira hurbiltzen diren ikusleek ondo pasatzea lortu ezkeru, nahikotzat joko lukete.

PATXI
 HARATEGIA
 Telefonoa: 83 18 37

URAITZ
 LURRINGEGIA
 KIROMASAJA ESTHETICIEN
 ENDAIA 3 TFNOA 83 18 97

Antilla
Jatetxea
 Abeslari, 2
 Tfnoa: 83 07 50

ORRAZKERAK
 AITA LERTXUNDI, 22
 TFNOA. 83 12 61

GURE TXOKO
TABERNA
 ARIZAGA KALEA

Orioko Arraun Elkarteak urteroko batzarra egin zuen

Azaroaren 26an Orioko Arraun Elkarteak urteroko ohizko batzarra egin zuen Itsas Etxean. Bertan urteko ekonomi-balantzea aurkezteaz gain, urteko estropaden emaitzak azaldu ziren.

Ondoren, presidenteak aditzaera eman zuen direktibak berea egin duela eta, ordezkioak sartzeko epea zabaldu dela, adieraziz talde bat baino gehiago baldin badago hauteskondeak izango direla. Batzarra bukatu ondoren bazkide batzuk aretoan bertan prest agertu ziren lanari ekiteko. Beraz, jarraipena segurua dugu.

Datorren igandean, abenduak bost, aurten irabazitako banderen bedekazioa izango da eta ondoren Oliban Jatetxean bazkaria izango da.

4 oriotar Españako arraun selekziara

Ohizko Ibon Urbieta eta Jon Salsamendirekin batera Mikel Orbañanos eta Altxerri gaztea ere deituak izan dira Sevillan egin duten konzentrazioa.



Mutilen saskibaloit taldeak jokatuak ditu aurrenengo partidua

Urriko KARKARAN iragarri genuen moduan, badugu gure herrian saskibaloiko talde berria. Dagoeneko bost partidu jokatu dituzte, eta taldeko kide baten hitzetan "konpetizioa holako kirol batean guztiz berria da guretzako". Oraindik ikasteko asko daukate hasi berri diren Seniorreko bigarren maila honetan. Baina, besterik ez bada, marka berria lortu dute dagoeneko, oriotar mutilen talde batek saskibaloiko partidua irabaztea seniorretako liga ofizialean. Orain dela hamar urte edo izan omen zen talde bat, haiek ordea, enpate bat besterik ez zuten lortu denboraldi hartan.

Dena den, ez zaizkie falta aholku eta irakaspen onak, neskekin hainbestetan txapeldun izan den Joakin Aranburu aritzen baitzaizkie laguntzen. Gogo handiz jasotzen omen dituzte talde kideek haren esanak.

Egin zure publizitatea

KarKara *aldizkarian*

ASEGURUAK

C C I

CARASA, CILVETI, LACORT Y CIA, S.A.

JUAN LOIDI AZKUE

Aritzaga, 3-1 Telefonoa: 83 11 90 ORIO

ZASS

ILEAPAINDEGIA
ESTETIKA
MIXTOA

SOLARIUMA
PERFUMERIA

San Nikolas, 2 Tfnoa: 83 31 70

Lehen mailako Erregionala

Bigarren mailatik lehenerako saltoak espero baino zailtasun gehiago ekarri badie ere, etxetik kanpo bi garaipen lortu ondoren, hasierako bolada txarra pasa dute. Momentu honetan sailkapenean bi positiboz daude, beraz, egoera lasai eta erosoan daudela esan daiteke.

Babeslea: "Ubiri eraikuntzak"



Kadeteak

Maila honetan, aurtengoa da inoiz jokatu duten denboraldirik onena. Orain arte ez dute partidu bakar bat ere galdu, beraz aurreko kategoriaz igotzea espero dute entrenatzaileek.

Talde honen babeslea "Dominguez pintura etxea" da.



Jubenil taldea

Arrazoi ezberdinengatik hiru jokalaririk onenetakoak bajan izan arren, orain arteko partiduetan emaitza ezin hobekak lortu dituzte.

Joku alai eta bizia eginez sailkapenean lehenengo postuetara igotzea lortu dute.

Babeslea, "Errota Jatetxea" da.

CD

Dominguez

PINTURAK-MOKETAK-PAPERAK-PARKETA

Araba kalea, 8 Zarautz Telefonoa: 13 04 93

**ERROTA
JATETXEA**

**Eztai ospakizunak
Banketeak
Karta zabala
Eguneko menua
Oheak**

Ubegun bidea Tfnoa: 83 54 65

UBIRI

JOSE MARIA GARMENDIA
kudeatzaile-zuzendaria

Eraikuntzak, S.L.

M. Etxetsiki, 1 beheka Zarautz
Tfnoa: 13 23 34

"Emaiok Buelta!" Bertso eskola

"KARKARA" k orri hau betetzeka bertso-eskolakoon esku utzi du, eta guk, zuek ere, etxetik bertsoan ikas dezakezuela erabaki dugu; mantso mantso hasiko gara. Gaur adibidez, kopla txikiarekin. Lehenengo ezagun bat jarriko dizuegu, esplikazioarekin batera eta gero guk egindako batzuk eta azkenik, ikasi ote duzuen ikusteko, zuentzat beste batzuk.

Hona hemen oso ezaguna den kopla txiki bat:

*Maritxu nora zoaz
eder galant hori
Iturrira Bartolo
nahi baduzu etorri*

Kopla txikiak lau lerro ditu. Lehenengoak eta hirugarrenak zazpina silaba dituzte. Bigarrenak eta laugarrenak seina. Sei silabako lerroen bukaeran joaten dira errimak. Kopla honetan: Hori eta Etorri.

-5-
*Lana bukatu degu
hemendikan guazen
zuek asmatu rimak
ea non doazen.*

Orain guk egindako koplak:

-1-
*Kopla txikia zer dan
agertu nahi gendun
Kopla txiki batean
agertu dezagun.*

-3-
*Zazpi silaba ditu
lenengo lerroak
eta beste hainbeste
hirugarrenagoak.*

-6-

_____ zozoz

bederatzi usó.

-2-
*Inork ikasi nahian
nahi balu jarraitu
lau lerro txiki eta
bi errima ditu.*

-4-
*Sei silaba dituzte
biak eta lauak
hauek dirade kopla
txikian arauak.*

-7-

_____ arkakuso

badezu akaso.

HARAGIA GUSTORA JAN NAHI
BADUZU EROS EZAZU...

Kepa Loidi

harategia urdaitegian

Pelotari,1 Tfnoa 83 25 65

RAMIRO

ARGAZKIAK

Eusko Gudari,9

☎ 83 10 48



Izarra

Bideo-produkzioak
Hi-Fi TV Bideoak
LPak, CDak eta zintak

Izarra Atorrasagasti

Aritzaga kalea 5
Tfnoa: 83 38 81

OLIDEN HARATEGIA

EUSKO GUDARI,2
TFNOA 83 10 86

Orioko ezizenak

Bukatu berria da Orioko euskera jasotzen urtebetez herriko bi neska-mutilek egindako lana. Lan horren atal batean herriko jendearen ezizenak jaso dituzte, eta atal hau da hain zuzen orain arte lana ikusi duten gehienei interesik handiena sortarazi diena. Horregatik erabaki dugu atal hori KARKARAKo orrialdeetan jartzea. Egileek beren lanean dioten bezala, ondorengo zerrendan ez daude diren guztiak, baina badira dauden guztiak. Orion ezagunenak direnak biltzen saiatu ziren, batzuk hildako jendearenak dira. Bitxikeria moduan esan, ezizena jartzeko ohitura hau batez ere gizonezkoen kontua dela.

Adierazi nahi dugu ezizenak herriaren irudimena eta bizitasunaren islada edo erreflejoa direla eta altxor hori ezagutzera eman nahi dugu, baina inor mintzeko inolako asmorik gabe.

Ezaugarri fisiko bat

Andresito
Andutxiki
Ankaputx
Beltxa
Buruauudi
Buztan
Exkerra
Gorra
Guapin
Ipurtokerra
Julianito
Karikaturas
Kaxkaxuri
Kojo
Luxia
Mediaguapa
Motxa
Okerra
Potxolo
Rubio
Taltarra
Tapon
Txangua
Txato

Txerrimutur
Xordo
Zakila

Pertsonai ezagun edo ospetsu baten izena

Barrabas
Bartali
Degol
Kenedi
Laxaro
Musolini
Onaindia
Truman
Txarlot
Txirrita
Txurtxil

Animalia baten izena dutenak

Akaña
Arratoya
Azkonarra

Baxamorro
Buztainka
Ixurdia
Kaballo
Kirrimarro
Leoya
Marsopa
Moxolo
Muxkulu
Ollua
Piojo berde
Suge gorriya
Donato Txepetxa
Txitxartos
Txolarra
Txoriya
Txorrotxoya
Xagua
Xomorrua
Xoxua
Zanga
Zekorra
Iriya

Jatorriagatik

Ataun

Donosti
Gallegua
Getari
Goyerri
Italianua
Katalana
Laredo
Laurgain
Madriles
Naparra
Ondarribi
Pasai
Potes
Rioja
Santoñas
Zautz
Xapua (Azpeitikoa)
Txintxarri (Alegikoa)
Kanarias


Lanbideagatik

Aguazilla
Alanbrero
Alkatezarranekok
Artzaya

Orio's **S**hop
mota guztietako arropa

**Jai zoriontsuak
opa dizkizuegu**

EUSKO GUDARI,17 TFNOA: 83 12 44



San Nikolas 93
festa-programa

San Nikolas 93

abenduak 3, ostirala

- 21:30 Ongi etorria Saint Cierseko lagunei
23:00 Rock kontzertua plazan,
BALDIN BADA
ILUNA BELTZ

abenduak 4, larunbata

- 09:00 Txistularien diana
10:00 Trikitixak kalejiran
10:30 Buruhandiak txistulariekin
12:00 Ikurriña altxatzea eta txupinazoa
12:00 Senidetze-ekitaldia Saint Ciers sur
Gironde herriarekin. Dantzariak eta
Oleskariak
13:00 Txakolin-probaketa herriko plazan

- 16:30 Pelota-partiduak frontoian
Erremontea: herriko lau gazte
Eskuz: Apezetxea—Almandoz
Urien—Bazetaren kontra
Palaz: Garrido—Goñi
Miera—Etxeberriaren kontra
20:00 Kontzertua elizan: Saint Cierseko
mandolinak eta Orioko musika-eskola
22:00 Senidetze-afaria Saint Cierseko
lagunekin, Kosta tailerrean
23:00 TARANTELA orkestra plazan
goizaldera arte

abenduak 5, igandea

- 09:00 Txistularien diana
10:00 Trikitixak kalejiran
10:15 Bilera Udaletxean: Saint Cierseko eta
Orioko korporazioak, arraunlariak eta



AIDAZA
Eusko Gudariak, 7 ☎ 83 10 88

ODITZ
Zapatadenda
Telefonoa: 83 00 89

DORRONSORO
Janaridenda
ABESLARI, 3 TELEFONOA 83 09 37

Kaixo Edaritegia
Ogitartekoak[®]
eta pintxo bereziak
Ifnoa: 13 07 73

San Nikolas 93

	Orioko txaranga	10:30	Meza nagusia Udal Korporazioarekin
10:30	Banderen bedeinkazioa, Oleskariak eta Saint Cierseko mandolinekin	11:00	Ziklo-krosa Antillako zelaian
11:30	Salda plazan	12:00	JUPITER txaranga kalejiran
12:00	Estropadak	12:00	Hamaiketakoa Zaharren Babes Lekuan
14:00	Herri-bazkaria Oliden jatetxean	12:00	Gym-kana
16:30	Herri-kirolak plazan: lau harrijasotzaile eta lau aizkolari	17:00	Asto-lasterketa eta jokoak: astakeriak astoekin herriko plazan
19:30	IRUÑA BAND taldea plazan	23:00	JOSELU ANAIK taldea plazan
23:00	IRUÑA BAND taldea plazan, goizaldera arte	01:00	Play Back plazan eta Gym-kanako sarien banaketa

abenduak 6, astelehena San Nikolas. Kuadrila eguna

09:00	Txistularien diana
10:00	Trikitixak kalejiran

abenduak 7, asteartea Mozorro eguna

09:00	Txistularien diana
10:00	Trikitixak kalejiran

MAPFRE, S.A.
ASEGURUAK

Eusko Gudari 44 A behea
Telefona: 13 37 20

ALTXERRI
Jatetxea

Telefona: 83 07 62

ERAIKUNTZARAKO MOTA GUZTIETAKO MATERIALAK

ANTONIO ALONSO S L

- Gres eta azulejuen erakusketa
- Komuneko eta sukaldeko altzarien erakusketa
- Sukalde ekonomikoak

Almazena eta erakusketa
Santiago auzoa
tfnoa: 13 25 33
faxes: 83 57 01

Denda eta ofizina
Iturbide, 5
tfnoa: 13 10 88

San Nikolas 93

11:00	Poney-ak ikastolan		
12:00	TRIAL-SINeko erakustaldia herriko plazan. Munduko txapelketan aritutako honako kirolariek hartuko dute parte: Aitor Sarasua, Ion Rios eta Tomas Garcia		
12:00	NEKAEZINAK txaranga kalejiran		
18:00	BISIGUAREN IBILBIDEA mozorro-desfilea, NEKAEZINAK txarangaren laguntzaz (Parte hartzaileei mozorrotzea eskatzen zaie)	09:00	Txistularien diana
20:00	Kontzertua elizan: AMALUR abesbatza	10:00	Trikitixak kalejiran
23:00	EGAN taldea plazan	10:30	Poney-ak ikastolan
01:00	Mozorro-lehiaketaren sari-banaketa	11:00	Haurren UFFUFFTHLOIA Itsas Etxean, Dilistak antolatua
		17:00	Pailazoak plazan: AZKONA ANAIK. Bukaeran merienda
		18:00	Alkoholik gabeko diskoteka frontoian bederatziz eta hamalau urte arteko haurrentzat
		19:30	Dantza plazan
		23:00	Dantza plazan, goizalderarte

abenduak 8, asteazkena Haurraren eguna

TALAI, S.M.

- ✓ AHOLKULARITZA ETA ANTOLAKUNTZA (Enpresa-negozioak eta Partikularrak)
Fiskala, Juridikoa, Kontablea eta Finantzieroa.
- ✓ ZERGA, ARRENDAMENTUAK, BALORAZIOAK, ESKRITURAK
- ✓ ENTITATE FINANTZIEROekin MAILEGU HIPOTEKARIOAK

Eusko Gudari 44 A behea ORIO TELEFONOA: 13 37 20

Barbero
Botikarioa
Butanero
Dambolin
Guardauja
Herrero
Iberduero
Karnizero
Kixkillero
Kabomar
Konfiterua
Mekaniko
Pakopintxe
Panadero
Peon kaminero
Pitusa
Sakristaia
Tapatxulo
Tapizero
Txurrero
Xeroria
Xestero
Zapatero
Txarolero
Lintenero
Uztargile
Xerenito
Kabo Xarra

Izakeraren ezaugarriren batengatik

Almanegra
Kakalari
Kapitan Bebeno
Komunista
Malaostia
Txulo

Jateko zerbaiten izena hartu

dutenak

Apio
Limon
Pastel
Pastelama
Txistorra
Txokolate
Tzorixo
Xardiñas

Emakumeak

Katxarros
Koltxonera
Mari Maistra
Maria Oliyo
Mediaguapa
Rekadista
Treskolores
Robustiana
Krexentxi
Remegi Txaga
Txurrera

Erderazko ezizenak

Aupaerbeti
Jitano Señorito
Malpeinau
Txamako

Bestelakoak

Agarraxo
Aguarras
Alde
Altxola
Amañu
Amaxa
Amoniako
Andutxo
Ane Ane Kulu Kulu

Anjel Oriyo
Apeto
Axokalte
Axuero
Beibi
Bibilio
Bixkar
Buztan
Dikezar
Erramolino
Erretxua
Eskolastika
Ferru
Galdagorri
Gorritxo
Gorriya
Grasero
Ia
Iñarra
Txarra
Jaungoikua
Jia Jia
Jose Maritxo
Kakallos
Kakio
Kanpanario
Kanpaña
Kaputxin
Karraballo
Katzitzo
Kaxkarra
Ketekiero
Kiki Bakalau
Konpaxa
Kontxo Kontxo
Kurrin
Laxarito
Lopez Tapia
Majataba
Makandro
Makatxa
Makis

Marrakallo
Maxpikdi
Meli
Mimoxo
Mistol
Mojaetxe
Moxo
Pakobueno
Paollas
Patalo
Patxerrikondo
Patxuli
Pedrotxua
Penjamo
Pikota
Pikota
Pintxaubas
Piojoberde
Pitallos
Putxades
Soldadua
Sopas
Susana
Taltarra
Tokolos
Tonbola
Tongo
Trapatas
Txaga
Txaketas
Txekolabrusa
Txistu
Txota
Txupetes
Uxxun
Xarpas
Xentellas
Xierba
Xixario
Yalas

BOLON TXIKI

Herriko plaza, 4

☎ 83 00 44 13 20 26

ertza

USAINDEGIA

Eskerrak Orioko Herriari

Banderak bedeinkatzekoa beti izan da emozioz betetako eguna guretzat. Denboraldia pasa da eta jasotako premio guztiak erakus eta eskeintzen zaizkio herriari.

Denboraldia oso ona izan da baina aurten ez da posible izan banderarik ederrena Oriora ekartzea. Denok nahi genuen Kontxako bandera lortu, horretan zeuden jarrita ilusio handienak, baina ezin izan dugu.

Hala eta guztiz ere, guretzako oso inportantea izan da Donostian, Kontxako bandera jokatu zen bi igandeetan, hainbeste oriotar ikustea bazter guztietan,



JOSE LUIS KORTA
ARRUN ELKARTEKO
ENTRENATZAILEA

Gazteak, bere bandera eta buillarekin, eta hain gaztea ez zirenak ere, goiz goizetik Alde Zaharreko txoko guztiak betetzen. Aurten, horia izan da Donostian nagusi.

Eta horregatik idazten dut gaur hemen, eskerrak emateko Orioko herriari gudan izan duen

konfidantzagatik. Momentu guztietan apoiatu gaituzue eta zuen ilusioak ikaragarri lagundu digu, indarra eta morala eman digulako. Guretzat, hau, irabazitako banderak baino inportanteagoa izan da. Aurten triunforik handiena Orioko herriarena izan da. Eta horrela den bitartean ez da beldurrik eduki behar: berriz ere etorriko dira Oriora banderak, berriz ere Kontxa irabaziko dugu.

Besterik ez, S. Nikolasetan, bedeinkazioaren egunean bandera inportanteena, horia izango da. Eskerrik asko Orioko Herri guztiari berriz ere.

IB GELATTO

Etxeko helatuak
eta kruasanak

San Nikolast 17 TFNOA 131747

SARASUA ERRETEGIA

Berezitasunak: — Arrain zopa

— Arrain eta haragi erreak

Eusko Gudari, 29

Tfnoak: 83 00 05
13 25 32

TXOMIN
ARRAINDEGIA

Eusko Gudari, 42

Tfnoa: 83 27 47

URANGA
BURDINDEGIA

EUSKO GUDARI 7
TFNOA: 831236

Joxe Mari Sarasua lanean Hirugarren Munduari laguntzen

*Jose Mari Sarasua
1962. urtetik
Aretxabaletan bizi da
bere emazte Mertxe
Maritxalar, oriotarra
hau ere, eta sei
semekin. Kezka eta
grinak Kooperatiben
lan mundua, euskera
eta batez ere
Hirugarren Mundua
ditu, eta gai horien
gainean hitz egin
zigun patxadan.*



INAKI ITURAIN

Bere aita Inazio eta betonen hirugarren emaztearekin

K.: Nola ikusten dezu jaioterrria zure atzerritik, asko aldatu al da zu joan zinanetik?

J.M.: Aldatu da bai, zorionez onera gainera. Gaur askok ikusiko dezue batasun gutxi dagoela, nik esango nuke lehen baino alkartasun gehiago dagoela. Gaur giza arlo gehienetan jendeak kontatzen du albokoarekin gauzak alkarrekin egiteko, lehen estropada bakarrik zegoen eta bakoitza bere alde-tik gainera, hori izan da gure martxa, nik uste dut hortan pausu garrantzitsua eman dala eta esango nuke bide onetik goazela.

Baina nik arantza sartua daukat Orion kultura alde-tik. Herri gehienetan euskararen kontzientzia berru barruraino sartuta dago, Orion berriz, ia ehunetik ehun euskaldunak izanda, ikara-

garrizko bentaja geneukan horretan ere aurrenak izateko, estropadetan bezela, baina ari gera gelditzen atzeko kertenean. Oso jende gutxi dago Orion hizketa bat osorik euskeraz egiten duenik, euskeraz hasi eta bukatu bai, baina tartean ia idea inportanteenak erderaz. Joaten zera klubera, eta lotsatzekoa da gure arraunlari euskaldun jatorrak, dena erderaz, baina erabat. Dendara joan, eta emakume gazte eta zahar berdin, lotsatzekoa. Ni ibiltzen naizen herrietan erdia baino gehiago erbestekoa da eta hemen baino euskera gehiago erabiltzen da, hobeto egiten da eta, askoz ere kontzientzia gehiago dago. Hori da arantza, bestaldetik Orion Udalaren aldetik ez da eraman politika sozio-ekonomiko egokirik eta ez dakit momentu hone-

tan bueltarik eman ote daitekeen. Ari gera pixkanaka bihurtzen "ciudad dormitorio" eta, turismo herria. Turismoak daukan aukera aprobetxatu egin behar da eta Oriok ondo egin du, kanpina egitea eta playa eratzea, baina hortik morroi herria dator, turismoa morroi fabrika da, gehienbat. Orion ez dago lanposturik, ez da horretarako erreztasunik izan, ez dira terreneak eta zona industrialak gertatu, ez da politika garbirik egon horretarako eta terreneak eduki ditugu. Jendeak Aiara joan behar lane-ra, Usurbila, Zarautza, hori iruditzen zait politika okerra. Nik hiru gauza horiek nabarmenduko nituzke, lehenengoa positiboa, beste biak ez hainbeste.

K.: Zu kooperatiba batean ari zera lanean, zergatik eta zertarako sortu

ziran kooperatibak?

J.M.: Esango dizut zertarako sortu eta zergatik irauten duten eta zergatik duten etorkizuna. Orain arte lana kapitalak antolatu du. Kapitalak edo kapitalistak lantoki bat sortzen du, eta gero langileen eta kapitalaren interes kontrajarrien arteko guda bat da denbora guztian. Interes horien orekaren bidez funtzionatzen du gizarteak. Hau da kapitalismoak sortu duen sistema. Honek zer dakar? Beno, kompetentzia honek denok mugiarazten gaitu, eta hori aurrerabide bat da, baina hola onenak bakarrik ateratzen dira aurrera, ez onak, onenak. Gero eta marginatu gehiago dago. Gaur egun hala dira lanik ez daukaten guztiak. Baina ez hemen bakarrik, EEBBetan 30 milioi inguru dira pobreak. Honek sufrimendu



Andrea eta sei semeekin Aretxabaletako etxean

asko dakar berekin, etengabeko borroka, patxadarik ez. Hori lehenengo Munduan, baina Hirugarren Munduan kapitalismoa mortala da, indarririk ez duten herriak suntsituta uzten ditu. Mundu honetan hirutik bi bestearen menpe hizi dira. Hemen, nazio aurreratuetan, baditugu partiduak eta sindikatuak, baina sindikatuen lana partxeak jartzea da. Erabaki inportante guztiak kapitalak hartzen baititu, zer prodizitu, non jarri lantegia, zer langile hartu. Zer gertatu da orain Wolsvagenekin? 6000 lanpostu kendu eta Alemaniara eraman. Hemen dirua daukariak erabakitzen du dana. Egoera horretan sortzen da kooperatibismoa. Guk uste degu pertsona dala aginpidea behar duena. Pertsona bere kapazitatearekin, ez bere diruarekin. Kooperatiba batean lanak dauka agintea, langileak hobeto esateko. Berak erabakiko du zeinek osatuko duen administrazio-kontseilua, lau urterako, eta haien proposamen inportanteak ere denon artean erabaki. Kooperatiba

pertsona-enpresa da, ez kapital enpresa. Langileak lanaren bidez bere duintasuna garatu behar du. Eta kooperatiben beharra, bere espiritu horrena beti egongo da, eta orain sekula baino gehiago. Batzuek uste dute Sozialismoak porrot egin duela, eta hori informazio gutxi edukitzea da. Ni ibilia naiz Errusian, Errumanian etabar, eta hangoa ez zan Sozialismoa, ezta antzik ere, hura Estatuaren Kapitalismoa zan. Autogestioa da mundu honek daukan soluzio bakarra, bestela pertsonen eta herrien arteko tirabira eta gatazka guzti hauekin segituko degu. Kapitalismoaren porrota izugarria da, mundu honetan ezinbizia dator alde guztietatik, gure artera ere bai, baina Hirugarren Mundukoa ez dago aguantatzerik.

K.: Zu Hirugarren Munduari laguntzeko talde batean ari zera, ezta?

J.M.: Bai, taldeak izena du "Zuzen, Aretxabaletako Hirugarren Mundu Taldea".

K.: Zertarako sortu zan?

J.M.: Kezka bat zegoelako. Aretxabaleta herri bizia da, aurreratua arlo guztietan, deporte, enpresa, parroikia, kultura, ikastola, eta Hirugarren Mundurako kezka ere hor egon da beti. Taldea parrokiako kontseilu pastoraletik sortu zan, baina segituan konturatu ginan ez zala parrokiako lana, edozein pertsona sensibleren egitekoa zala, eta taldeirekia egin behar zala. Helburuak oso garbi utzi genituen. Lehenengoa herrian kontzientzia hartzea Hirugarren Mundu bat badagoela, zer gertatzen dan han, eta guk

zerikusia daukagula han gertatzen denarekin. Ez da eduki behar pena bakarrik, asko daude telebisioan inudi batzuk ikusi eta malakoak ateratzen zaizkienak. Hori pena da, baina ikusi behar da hor gu ere harrapatuta gaudela, gure egoerak bultzatzen duela haiena. Lehenengo mundua zapaltzen ari da hirugarrena eta beraz gu responsableak gera guztiz. Bigarren kontu da, zerbait egin daiteke? ze nik uste det jende asko dagoela borondate-tsua, "nik ikusiko banu nola lagundu eta laguntza borrek eragina duela lagunduko nuke", batzuk aitzaki moduan esaten dute jakina, Baina badira datu batzuk, esaten dutenak Estaduan %60 prest legokeela laguntzeko baldin eta seguru jakin ezkerreko laguntza bere helburura iritsiko dala. Orduan bigarren helburu garbia, hango egoera hemengo herriarrei hurbiltzea da, eta horretarako informazio handia behar da, zenbat diru behar dan, diru hori nora dihoan, zer egin behar dan han. Guk izugarri egin dezakegu, izugarri, gure pezeta bat Afrika, Asia, edo Hego Amerikako leku askotan berrogei aldiz biderkatzen da, hemengo mila pezeta han berrogei mila dira. Eta diru horrekin zerbait egin daiteke. Guk pagatzen diogu irakasle bati 1.500 pzta hilera, hau da hango soldata, eta irakasle bakoitzak 60 ume ditu, diru horretan gainera materiala eta guzti sartzen da. Hori hemen hamar aldiz gehiago kostatzen da. Beraz asko egin genezake, gure laguntza txikia han izugarria egiten da. Hori da bigarren arloa, guk ze indar daukagun jakitea eta adieraztea. Gero informazioa ematea bitala da, "begira zuk emandako

"Gure dirutik % 0,3a emanda sekulako iraultza sortuko dugu"

laguntzarekin zer egin dan, zer lortu dan". Horiek dira orduan puntu nagusiak, kontzientziatu, gure responsabilitatea ezagutu eta jakitea gure laguntza benetan oso handia izan daitekeela.

K.: Eta zer lortu da, zertan ari zerate orain?

J.M.: Aretxabaletan momentu honetan daude hirugarren munduan lanean, batzuk erlijioso eta beste batzuk laguntzaile bezela, 14 lagun, bere bizitza horretara emanda. Horietako bat etorri zan Indiatik eta aurkeztu zigun bere behar handi bat, Indian bada Unai izeneko lurralde bat eta han egiten du honek lana. Han 16 herri txiki daude eta gosearen zuloatik atera nahi ditu. Herri hauetan bat az beste 1000 pertsona bizi da bakoitzean. Arazo asko daukate, baina oinarrizkoa elikadura, zer jan, Ohizko jana arrosa da, hori erailen dute, baina bere terrenoa ez da ordeka. 16 herri horietan, bat az beste 323 hektarea dira, proiektua da horiek berdinu, hektarea bakoitza hesitu, eta gero 11 putzu egitea, 12 bat metrokoak, zeren ura badaukate baina lur azpian eta oso sakon. Horrezaz gain 16 eskola egin nahi dira, eskola aurrekoak, bana herri bakoitzean. Dana 16 milloi t' erdi pezeta, guk lau urterako hartu genuen lan horren erantzukizuna.

Gizon honek, Galdos du izena, oso ondo dauka erata bertako jendeak jestionatu, lan egin eta auto-antolaketa aurrera eramateko. Erabakiak ere ez ditu berak hartzen, hango jendeak baizik, izan ere proiektu hau ez da ez berea, ez gurea, haiena.

K.: Euskal Herrian

bertan ez al dago nahikoa arazorik, munduko ez dakit zein lekutakoak konpontzera joateko?

J.M.: Nik uste det Hirugarren Munduko problemekin kezkatuta dagoena hemengoetan ere murgilduta dagoela, bestela ez gabilza ondo. Nere ustez zeharo osagarriak dira. Gasteizko Udalak bere presupuestoaren %, 0'7 ematen du Hirugarren Mundurako, eta hango alkateak esaten duen bezela horrek ez du eraginik hemengo arazoetan. Aretxabaletako Udalak %0'25 ematen du, eta gure patrikatik ematen deguria iristen da % 0'1era, eta horrek hemen ez du ezer konpontzen. Gainera nik esango nuke hara begira egiten dan lanak hemen ere eragin positiboa duela.

K.: Bestelako kritika ere egin ohi zaio horretan dabilen jendeari, alegia laguntzera joan arren beti ere hemengo ikuspegiarekin joaten dala, eta ez dala hango kultura, ohiturak, hizkuntza etab. kontutan hartzen...

J.M.: Kritika hori nahiko arrazoizkoa izan da eta egia da. Baina azken urte hauetan izugarriko kezka ikusi det horretan dabilzan erakunde serio guztietan, alde horretatik ikaragarriko aurrerapausua eman dala, eta gaur inork ez dauka dudarik hori oinarrizkoa dala hemendik hara dihoan edozeinentzat. Gure kasuan hango lana erabat bertakoek egiten dute. Galdos honek daramakizki han 41 urte eta 61 ditu. Ez du esaten Aretxabale-

takoa danik, "ni indiar hiritarra naiz" esaten du beti, eta hango hizkuntza hitzegiten du bertakoek bezelaxe.

K.: Orion zer egin lezake horrelako kezka daukan batek, zein izan liteke lehenengo pausua lanean hasteko?

J.M.: Begira, Orion dagoeneko bada talde bat kezka hori daukana eta lanean hasi nahi duena. Gurekin harremanetan jarri dira eta Aretxabaletara joatekotan dira gure taldea eta gure lana ezagutzeko asmotan.

Has daitezela lanean, bada go ta zeregina. Datu bat emango det itxaropenerako balio duena, gure proiektuak balio dituen 16 milloi horietatik 9 t' erdi bidali ditugu bi urte pasatxon, beraz epea bukatu baino lehen espero degu proiektua burutzera. Haien berri oso gertutik segitzen degu, aurtan ere egon

da Galdos hemen gure artean eta badakigu haien zat gure dirua ikaragarri dala, baina batez ere eskertzen dute laguntza moral, bizipoza eta aurrera segitzeko gogoia ematen dien aldetik. Bideo bat ekarri digu, bertan ikusten da nola proiektua aurrera dihoan, putzuak egin dituztela, arrozalak ere bai, nola lanean ari diran; eta bideo hori zabaldu egin degu hemengo laguntzaile guztien artean, oso inportantea baita ikustea hemengo lanak eta laguntzak bere eragin zuzena duela han.

Aretxabaleta bezelako herri bat, 16.000 biztanlekoa, gauza bada bera halako ia hiru bizitzeko eran jartzeko, uste det mundua regeneratzeko ikaragarriko ahalmena daukagula. Nolanahi ere lehenengo munduak dauka giltza,

Joxe Mari sekulako grina du lanerako eta haikorra da etorkizunari begira





Aurrerako apostua

Krisi ekonomikoak munduko herri asko afektatu ditu eta oriotar-rrongan ere izan du eragina. Gure herrian oinarrizkoak izan diren hainbat sektore (arrantza, altzari-gintza edo kontserbak) krisiak jota daude. Bestalde, oriotar askori lana ematen zioten inguruko herrietako industriak ere (Michelin, Luzuriaga edo Zarauzko tailerrak, esate baterako) plantilak murrizten ari dira.

Egoera horren aurrean, behar-beharrezkoa da Orion lanpostuak sortzea oriotarrentzat, batez ere gazteentzat, horiek baitira lan-falta gehien sufritzen dutenak eta, bestela, kanpora irten beharko baitute lan bila. Ezin dugu egon beste herrian sor litezkeen lanpostuen zai. Orio bizirik nahi badugu, hildako herri bat izatea nahi ez badugu, kapaz izan behar dugu besteren menpe ez egoteko. Eusko Jaurlaritzak «LURRALDE ORDENAMENDURAKO IRIZPIDEEN AURRERAKINA» dokumentuan Orio *lotarako herriaren* papera ezartzen dio eta gu horren kontra gaude erabat.

Oriok aukera handiak ditu lan-

postuak sortu edo sendotzeko itsasoaren, industriaren eta zerbitzuen sektoreetan, zeren eta ibaiak eta ibai-inguruak posibilitate handiak eskaintzen baititu. Aplikatu beharreko kriterioak honako hauek lirateke:

ITSASOA. Barraren arazoa behin-betikoz konpontzearen baitan dago. Arazo horren aurrean herri gisa planteatu behar dugu errebindikazioa, berriaz ere hitz hutsetan gera ez dadin. Behin arazo hori konponduta, uste dugu arrantza-sektorea indartu egingo dela, kirol-portua egin ahal izango dela eta itsasoarekin lotutako bestelako aktibitateak sor litezkeela: komertzialak, industriak eta zerbitzuak (kontserbak, kirol-untziolak, tailerrak...)

INDUSTRIA. Uste dugu Oriok bere industria sortu behar duela. Motondon Poligono Industrialaren aldeko apostu garbia egiten dugu. Industrialde horretan kokatuko dira herriko tailerrak eta sor litezkeen berriak. Motondo da posibilitate hori ematen duen alternatiba bakarra, beste zona batzuk zailtasunak baitituzte, tamainaga-

tik, kokapenagatik edo akzesogatik. Hori, jakina, benetazko balio ekologikoa izan dezakeen guztia orrespetatuz. Ez dugu onartzen ustetzeko «ekologistek» gure etorkizuna geldiaraztea. Ez dugu «salbatzailerik» behar.

ZERBITZUAK. Oriok potentzial handia du zerbitzuen sektorean, batez ere turismo, atsedena eta aisaldia alorrean. Hondartza ingururako Plan Bereziaren barruan azpiegiturak sortu behar dira: hotelak, kirola egiteko eta atsedenerako zonak eta abar.

FORMAZIOA. Udalak formazio-plan bat jarri behar du marixan, gure gazteak eta, orokorrean, formazioa behar duten pertsonak prestatzeko, Orio sortzen diren lanpostuak oriotarrek bete ditzaten.

Uste dugu aurrean dugun erronka garrantzi handikoa dela Oriorentzat eta oriotar guztiek, Udalaren gidaritzapean, bultzatu eta apoiatu behar dugula. GUZTION esfortzua eskatzen du. Orioren etorkizunaren aldeko apostua da. Ez diezaiongun aldegiten utzi etorkizunaren trenari.

● Erredakzioan itzulia

daddy

BAKERO,NIKI,
KAMISETA, JERTSEAK...

Estropalari kalea, 12 - Telf. 1 3 2 8 1 6 - ORIO



Eusko Gudari, 33 Tfnoa: 83 39 20

Orioartekoa

Itsas etxea dela eta. Aurreko alean esku artean iritsitako keja bat azaldu genuen Itsas Etxera aretoa eskatzera joandako trabak jarri omen zitzaizkiola esanez

Geroztik gauza batzuk gertatu dira. Batetik Itsas Etxeko arduradunak haserretu egin direla aurreko hori gezurra omen delako. Bestetik hitzarmen bat egin duela Udalarekin Itsas Etxeko Aretoan herritarrek erabil ahal dezaten erreztasunak jartzeko. Esan behar da akordio hau ez dela izan kritikaren ondorio, aldez aurretik bideratuta zegoelako. Nonbait Itsas Etxek Udaletxeko aurreko korporazioari eskaini omen zion aukera hori, eta haiek hitzak hartu ez.

Orioartekoak hiru gauza esan behar ditu. Bat: aurreko keja hura ez zuen berak asmatu, ezertan ere, eta entzun bezalaxe jarri zuela paperean. Bi, eta batez ere, ikaragarri poztu dela herriko taldeek aretoa erabil dezaten lortutako akordioa gauzatu delako. Eta hiru: Txoko hau egokia dela kritikak eta proposamenak

plazaratzeko, edozeinek dauka KARKARAN idazteko eskubidea eta aukera, eta kritika beharrezkoa eta osasun onaren seinale dela, gauzak txukun eta ondo egin nahi badira behintzat.

Euskaraz gazte kanpaina. Iritzi bitxi samarra ere iritsi zaigu kanpaina honen inguruan. Iritzi honen arabera kanpaina diseinatu duenak ez du ezagutzen gaztearen mentalitatea, eta aro horri dagozkion inkonformismoa eta errebeldia diskurtsoen kontra. Bestela "erderaz gazte" kanpaina eratuko omen zuen.

Beste batek herriz, hitz gutxitan adierazi du bere zera: "Uf azkenean bukatu da!"

Orioko Jarrairi. Iniziatibak eskatzen dituzue, ba hona bat: antolatu hitzaldia edo mahai-ingurua Intsumisioaren gainean Orion, eta eman informazioa soldaduzkako edadean dauden gazteei. Ah! eta egin Orioko euskera, "Denok izanzen dugu kezka bat bederen" bezelako esaldiak ez dira ta oso ulergarriak herriko zenbaitentzat.

Ijimoto

Zorionak

Arraun Taldeko direktiba kideei

Arraun Taldeko direktiba kideei azken zortzi edo bederatzi urte hauetan egin duten lan ikaragarriagatik. Denbora horretan denetik ezagutu dute, urte txarrak, hola-holakoak eta onak ere bai. Orain jarraituko diote beren lanari eta txanda utzi beste batzuri. Hauek osasun onean hartuko dute kluba, Iñaki Sarasuak, Joxe Mari Olasagasti, Koldo Olariagak etabar egindako lanagatik. Bejondeizuela.

Zoriotxarrak

Dikeko semaforoa

Akaso beharrezkoa oso izango da semaforo hori baina amorrazioa ere ematen du Donostiatik herrira autoz zatozen guztietan bertan geratu behar izatea. Okerrena da, gehienetan alper-alperrik geratzen zarela, bestaldetik —hau da, berde dagoen aldetik— inor gutxi pasatzen baita eta, beraz, karretera jeneralean sortzen diren kotxe-ildak erabat alperrikakoak direla.

ITZiAR

Kirolak

Eusko Gudari, 23

83 31 03



ORIO

Carmen

ARRAINDEGIA

tfnoak: 83 05 37 83 33 71

Urrian Jaiotakoak

Aitor Alberdi Idarreta, urriaren 1ean

Edurne Carrera García, urriaren 27an

Itzi Iburguren Kenedo, urriaren 31n

Urrian Ezkondutakoak

Dionisio Hernandez Hernandez eta Lurdes Esnal Portularume, urriaren 2an

Juan Antonio Aguado Ramo eta Miren Elisabet González de Txabarri, urriaren 9an

Anjel M. Miera Atorrasagasti eta Bixen Eguez Arruabarrena, urriaren 30ean


Urrian Hildakoak

Agustin Manzisidor Arruti, urriaren 4ean

Gillermo Uhegun Ostolaza, urriaren 7an

Juan Arruti Aramendi, urriaren 11n

Estanislao Enbil Aiestaran, urriaren 21ean

HIZKI ZOPA

Ale honetako hizki zopan Orioko hamar baserriren izenak aurkitu behar dituzue.



**Gure
herriko
garagardoa**

K2

Irakurri

Egunkaria

Euskarazko prentsa



Patxi Uranga

E R R E Z E T A

Txipiroiak bere tintan

(lau lagunentzat)



Paxita Peña
Joxe Mari Erretegia

OSAGAIAK:

- Kilo bat txipiroi
- Tinta poltsa pare bat, bereaz gain
- Gatza eta azukre piska bat
- Baso bat ardo gorri
- 250 gr. tipula
- Tomatea

EGITEKO MODUA:

Tipula txiki-txiki egin; kazuela olioz jarri, eta tipula txikitua eta txipiroi gordinak bertan jarri su normalean. Kolorea hartutakoan, baso bat ardo bota eta sua jetsi. Horrela eduki ordu erdi edo hiru ordu laurden. Ia eginda daudenean hegala kendu. Txipiroiak, hega-

la eta saltsatik banatu. Hegalak, saltsa eta tinta turmisetik pasa eta gero pasadoretik pasa. Saltsa berri hau, kazuelara bota eta tomatea gehitu. Gatza eta azukre piska bat ere bota orain. Saltsa hau, txipiroiak dauden kazuelara bota eta irakin arte sutan eduki.

Kirola eta osasuna guztiontzat



RAFA G. DE TXABARRI

Heziketa Fisikoko Irakaslea

Kirol mundua oso zabala izanik, egun gai konkretu eta oso zehatzak jorrazten dira bakarrik: errendimendurako kirola, aktibitate fisikoa eta estetika. Askotan pentsatzen dugu, telebistan ikusten ditugun futbolistak eta ziklistak direla bakarrik kirolariak, eta ez gara konturatzen horrek ez duela ze-

rrikusirik gure osasunarekin, kirola hori baino gehiago dela.

Honegatik, hemendik aurrera, kirolak eta aktibitate fisikoak dituen gai eta ikuspuntu ezberdinak azalduko dira KARKARAN. Lerro hauen bidez denon artean zenbait erreflesio egiteko aukerari ekingo diogu. Horrekin batera kirola eta ariketa fisiko ezberdinak burutzeko aholku eta arau sinpleak eskeiniko zaizkizue, hau baita gure helburu nagusia.

- Mugimendua, pertsonaren funtsezko tresna da bere burua eza-gutzeko eta bere inguruarekin harreman zuzena izateko, beraz, denok erabili behar dugu aktibitate fisikoa gure garapen pertsonala ongi gauzatzeko.

- Mugitzen ari den gorputza espresatzeko gai da, eta honek estetika mundura hurbiltzen gaitu, gustoa eta koordinazioa landuz.

- Mugimenduak egungo gizartearen ohizko sedentarismoa kompensatzen du.

- Mugimenduak bestekin harremanak izateko erabiltzen ditugu.

- Norberaren osasuna eta sasoi hobetzeko eta gaisotasun eta arazo jakin bautzuei aurre egiteko nahitaezkoa da.

- Gorputz mugimenduaren bitartez, pertsonak, bere ahalbideak frogatu, lehiatu eta zailtasunak gainditu ditzake.

- Gorputz ariketaren bitartez, tentsioak astindu eta gure gorputzaz gozatzeko aukera izango dugu.

Hauek dira, labur-labur, kirolaz aritzerakoan ahazten zaizkigun gauza batzuk. Alegia, kirola gure bizitzatik aparte edukitzeko ahazten ditugunak. Hemendik hausnarketa txiki bat proposatzen dugu: gustatuko litzaizuke zure gorputzaz gozatea? Zure buruarekin (eta gorputzarekin) gustora sentitzea? ... bada... anima zaituz.

“Kirola egitea pertsona guztion eskubidea da”

Kirolaren Europako Gutuna, 1. artikulua.

ORIOKO PROMOZIOAK I, s.l.

**2, 3 eta 4 gelatako etxebizitzak
merkatal lokalak eta garajeak**

kasio,9

Telefono: 83 41 44

Orto 20010

RIGOBERTA MENCHU-RI DIRULAGUNTZA

“HERRI INDIGENEN BIGARREN BILERA-TOPAKETA” C.L.P.:
198.1.00536.9 BERRIOZAR, NAFARROA

ELKARRI

LAIARI

izozkiak

Eusko Gudari, 42 Telefonoa: 13 42 64

**KAIA
JOLASAK**

Bariko San Nikolas

XIV. mendean Oriori hiribildu («villa») maila eman zitzaionean azaltzen da lehen aldiz San Nikolas izena Oriori lotuta, elizaren izena San Nicolás de Bari baitzen. Badirudi, beraz, eliza egiterakoan aukeratu zutela Santu horren babespean jartzea. Eta zergatik San Nikolas eta ez San Pedro edo besteren bat? Ez dugu, seguruenan, erantzun garbirik aurkituko baina goazen ditugun arrastoetan piska bat miaztera.

**ANDRES GARMENDIA
ANA G. DE TXABARRI**

Oriotar askok ez dute jakingo non dagoen KAR-KARAKO zenbaki honetako azalean ageri den irudia. Gehienek ez dute ezagutuko elizako aldare nagusiaren gainean dagoen San Nikolas besterik, erretablo barroko ikusgarriaren buruan dagoena, hain zuzen ere. Elizako hori, egia esan, urruti samar geratzen da ondo fijatzeko baina badakigu San Nikolas dela, apain jantzita dagoela eta, azken garbiketari esker, obispoen mitra eta bakuloak daramatzala. Aldizkariaren azalekoa askoz xumeagoa da eta gertuago dago ikusi nahi izatekotan, kofradiako arku-petara joatea besterik ez dago. Hantxe, kristalezko ate batek ixten duen kaja batean dago, barometroaren gainean. Ilun badago, argitxo txiki bat ere pizten da hobeto ikusteko.

Historia piska bat

Nikolas hori orain dela mila eta seiehun bat urte bizi zen. Liciakoa zen (gaurégun Turkiako hegomendebaldean, Mediterraneoaren ondoan) eta lurralde hartako Mirahiriko obispoa izan zen. Bere bizitzaz datu seguru gutxi ditugu: kristaua eta aberatsa zela eta obispo izatera iritsi zela. Gainerako guztia leiendaz beteta dago. Beti aipatu izan da oso eskuzabala zela, dirua eta erregaliak partitzen zituela behartsuen artean eta beti prest zegoela estuasunean zebilenari laguntza emateko. Mirari asko egiten zituen fama ere bazuen eta, horrela, hiru ume txiki berpiztu zituela ere kontatzen dute: kofradiako irudian, kankarta handi batean sartuta, hiru haur ageri dira santuari begira.

Baina izena ez du Mirako San Nikolas, baizik eta Barikoa, eta Bari Mediterraneoan dago Miratik urruti; Italian, hain zuzen. Horren arrazoiak hau da: XI. mendean San Nikolasen hezurak Barira eramantzen zituzten, garai hartan turko eta musulmanen esku erortzeko zorian zeudelako bai Lur Santuak eta baita Licia ere.

Barin hasi zen Nikolas ospetsua egiten kristautentzat. Baritik irteten zuten Jerusalemara itsasoz joan nahi zuten erromesek. Erromes haiek aukeratu zuten Nikolas babesle, itsasoko bidean izan zitezkeen ezbeharretan lagun izateko. Beharbada, hori izango da aintzinako oriotarrek gure elizari San

Nikolas izena emateko izan zuten arrazoiak. Auskalo!

San Nikolas European

San Nikolasen fama oso handia da Europa osoan eta iparraldeko nazioen tradizioan bera da haurrei gabonetan erregaliak ekartzen dizkiena eta ez Erregeak, gure artean bezala: Santa Klaus dugu, Bizar Zuri, beti alai eta maitagarri.

Tokitxo bat egin beharko diogu oriotarrok ere Oientzero eta Erregeen artean; besterik ez bada, aspalditik gure artean egoteko aukeratu genuelako.



Garmendia

aseguru-agentzia

☎ 83 44 66

**Marisko
Biberoak**

Telefona: 13 12 97

- Angulak
- Mariskoak
- Arrai finak

Ostalaritza Zerbitzua



EZETZ EZAGUTU! lehiaketa

Oraingo honetan 1961 ean ateratako argazkia dugu. Bertan ikuz dezakezuenetz hamar emakume oriotar azaltzen dira. Ale honetan jantzi zuririk ez dutenen izenak asmatu behar dituzue. Hau da, sei izen.

*Orain arte egin dugun bezala, afari bat zozketatuko dugu asmatzailleen artean. Afaria **Itsas Ondo Jatetxean** izango da.*

*Erantzunak **abenduaren 28rako** bidali behar dizkiguzue. Gure helbideak hau da:
KARKARA aldizkaria Ezetz ezagutu! lehiaketa Herriko plaza, 1*

*Aurreko aleko irabazlea **Maria Jose Etxeberria** izan da. Hau da berak emandako erantzuna:
Tiburcio Etxeberria, Domingo Mitxelena, Ramon Solaberrieta, Inazio Sarasua, Manuel Sarasua, Jose Mari Zumeta, Jose Zumeta, Inazio Manterola, Joakin Azkue eta Agustin Arrillaga. 1934ean, Oriok irabazi egin zuen Kontxako bandera.*

ITSAS-ONDO

Bataioak, jaunartzeak, negozio eta talde bazkariak



kaia kalea, 7
tfnoa: 13 11 79

Ekar ezazu zure hipotekaren azken ordainagiria, bezero ez bazara ere, zehazten dizkizugun Arreta Espezialduaren Zentruetara. Astelehenetik ostiralera bitartean, 9etatik arratsaldeko 6ak arte. Edo gehiago hobesten baduzu, zatoz gure edozein sukurtsaletara. Aldez aurretik 900 555 900 telefonoan txanda eskatuz. Zuri egokiago kasu egiteko. Zure kasu pertsonala adibide erreal batekin aztertzeko. Zure hipoteka zaharra kitatuz, zenbat diru aurrera dezakezun ikusteko.

Ekarri zure hipoteka eta kontuak atera.



Bilbon
Arenalean, 2 - 6.
solairuan.



Donostian
Askatasunaren
Hiribidea, 35ean.




Gasteizen
Dato, 14 - 16an.



Iruñean
Arcadio M.
Larraona, 1 - 1.
solairuan.
Euskadiko Kutxa
edifizioa,
San Juan
Ermitagaña.

Hotsegizu aldez aurretik 900 555 900ra txanda hartzeko



D. Bastos
1990